

kutxabank

# Kutxabank eta Fundazio akziodunak

## Ekonomia, gizarte eta ingurumen arloko jasangarritasunean erreferente

2024ko apirila

# Laburpen exekutiboa

1 Kutxabank **finantza-zerbitzuen erakunde liderra** da Euskadin, oso konprometituta dago ekonomiaren, gizartearen eta ingurumenaren garapenari dagokionez, eta euskal ekosistema finantzarioaren sustatzaile nagusia da

2 **Kutxabank Taldearen jarduerak, EAEn, zuzenean eta zeharka, EAEko BPG-aren % 10,9 hartzen du, enpleguaren % 12,5 sortzen du eta zergen % 4,5 inguru sortzen laguntzen du**

3 Gero eta **emaitza handiagoa eta iraunkorragoa** sortzen dugu, eta fundazioen **eragina gizartera itzultzen da Gizarte Ekintzaren bidez; gure eragina maximizatzen saiatzen gara,** Enpresaren Gizarte Erantzukizunaren bidez, eta NBEren Garapen Jasangarriko Helburuak betetzearen alde lan egiten dugu (17tik 13)

# Edukien aurkibidea

1 **Erakunde eredu** propioa dauka eta etekinen % 100 gizarteari itzultzen dio

2 **Konprometitua** dago lurraldearekin, herritarrekin, enpresekin eta instituzioekin, azken finean, EAErekin

3 IGG/ESG irizpideak barne hartzen dituen **negozio** eredu **jasangarria**

4 Ikuskatzaileek, arautzaileek eta inbertitzaileek **aitortutako** eredua



# Kutxabank

## Gure erakunde eredua

## Kutxabankek eredu propioa du. Bertan, akziodunen %100 banku fundazioak dira

## 170 urtean baino gehiagoko balio ekonomikoa eta soziala sortu du

### Akziodunen banaketa

| BBK Fundazioa | Kutxa Fundazioa | Vital Fundazioa |
| --- | --- | --- |
| Funtzio soziala | Funtzio soziala | Funtzio soziala |
| %57 | %32 | %11 |

### Banku-jarduera

Euskadin, Kutxabank markaz gain, lehengo Aurrezki Kutxen markak mantentzen dira

Kutxabank Cajasur Bankuaren %100ren jabea da

cajasur

Finantza jarduera

Andaluzian, banku-jarduera Cajasur markaren bidez egiten da, eta Fundación Cajasur eta Convisur ere badaude

**Cajasur Fundazioa**
Funtzio soziala

Iturria: geuk egina

## Kutxabank Eredua

| Akziodunen eredua | | | |
|---|---|---|---|
| **Bankuak** | **Kreditu-kooperatibak** | **Aurrezki-kutxak / Fundazioak** | |
| | | **Jabetzaren %100** | **Jabetza partziala** |
| Etekinak akziodunei ordaintzeko edo erreserbak eratzeko erabiltzen dira | Etekinak kooperatibistak ordaintzera, Hezkuntzarako eta Kooperatibak Sustatzeko Fondora edo erreserbak eratzera bideratzen dira | Onurak Gizarte Ekintzara edo erreserbak eratzera bideratzen dira | Gizarte Ekintzara, gainerako erreserbak eratzera edo akziodunak ordaintzera bideratzen dira |
| **Erakunde-kopurua** | | | |
| 52 | 62 | 4 | 2 |
| Krisiaren aurrekoa: 66 | Krisiaren aurrekoa: 81 | Krisiaren aurrekoa: 46 | |
| **Erakunde nagusiak** | | | |
| • Santander<br>• BBVA<br>• Sabadell<br>• Bankinter<br>• Abanca | • Cajamar<br>• Laboral Kutxa<br>• Bantierra<br>• Cajalmendralejo<br>• Caja rural de Navarra | • **Kutxabank**<br>• Ibercaja<br>• Caixa Ontiyent<br>• Caixa Pollença | • CaixaBank<br>• Unicaja |

Iturria: Guk eginda. Bankiak fundazioei eutsi die akzioetan, BMNrekin bat egin ondoren

Banku Fundazioen % 100eko jabetza duen entitate bakarra da, eta bere kudeaketa zuhurrari esker, eredu horri eutsiko dio

# Dibidenduen % 100 gizarte-jardueretarako da

<table>
<tr><th>Akziodunak</th><th colspan="4">Akziodun Fundazioen ildo estrategikoak</th></tr>
<tr><td rowspan="2">BBK Fundazioa</td><td>Heldutasun aktiboa</td><td>Familia eta haurrak</td><td>Trebakuntza eta enplegua sustatzea</td><td>Mendekotasuna eta desgaitasuna</td></tr>
<tr><td colspan="2">Efizientzia, hurbiltasuna eta "errentagarritasun soziala"</td><td>Hirugarren sektorea indartzea</td><td>Sormenaren eta berrikuntzaren kultura</td></tr>
<tr><td rowspan="4">kutxa<br>KUTXA Fundazioa</td><td rowspan="4">Gipuzkoako enpresa estrategikoetan parte hartzea</td><td rowspan="3">Jarduera sozial propioa garatzea</td><td>Kutxa Ekogunea</td><td>Tabakalera</td></tr>
<tr><td>Kubo-Kutxa Aretoa</td><td>Eureka! Museoa</td></tr>
<tr><td colspan="2">Onkologikoa Fundazioa</td></tr>
<tr><td colspan="3">Gizarte-jarduera sustatzea lankidetzan</td></tr>
<tr><td rowspan="2">Vital<br>VITAL Fundazioa</td><td>Arabako Koadrilen proiektua</td><td>Enplegua eta laneratzea</td><td>Ekintzailetza, ikerketa eta berrikuntza</td><td>Balioetan oinarritutako hezkuntza</td></tr>
<tr><td colspan="2">Arabako ehun kulturala eta kirola</td><td colspan="2">Arabako ingurumenarekiko eta kultura-ondarearekiko konpromisoa</td></tr>
</table>

**1.500 MM €-tik gora dibidenduetan 2012tik**

Iturria: barne-informazioa, fundazio akziodunen plan estrategikoak (BBK Fundazioa, Kutxa Fundazioa eta Vital Fundazioa)

# Bere misioan, ikuspegian eta balioetan konpromiso argia du jasangarritasun ekonomikoarekiko, sozialarekiko eta ingurumenekoarekiko

| Misioa | Ikuspegia | Balioak |
|---|---|---|
| Kutxabankek jasangarritasunean oinarritutako irizpideekin sortzen du **balioa ekonomian** eta gizartean. Horretarako, kalitatezko finantza **aurreratu** eta berritzaileak eskaintzen ditu. (Soziala, Gobernantza, Ingurumena) | Erreferentziazko Banka Komertziala (Soziala) | Hurbiltasuna (Soziala) |
| | Talde sendoa (Soziala, Gobernantza) | Erraztasuna (Soziala) |
| | Gizartearekin arduratsuak (Soziala, Gobernantza, Ingurumena) | Gardentasuna (Gobernantza) |
| | Konfiantza (Soziala, Gobernantza) | Berrikuntza |
| | | Zuhurtzia eta Kaudimena |
| | | Konpromisoa (Soziala, Gobernantza, Ingurumena) |
| | | **Jasangarritasuna** (Ingurumena) |

Soziala
Gobernantza
Ingurumena

Iturria: geuk egina, 2022-2024 Plan Estrategikoa

# IGG/ESG (Ingurumena, Gizartea eta Gobernantza) irizpideetiko konpromisoa banku eredua ulertzeko dugun moduarekin bat dator



**ENVIRONMENTAL**
**INGURUMENA**

$CO_2$ emisioak
Gertakizun klimatikoak
Kutsadura
Jasangarritasuna
Ekonomia zirkularra



**SOCIAL**
**GIZARTEA**

Aniztasuna
Giza-eskubideak
Segurtasuna
Kontsumitzaileak
Genero Berdintasuna
Hezkuntza kudeaketa



**GOVERNANCE**
**GOBERNANTZA**

Estrategia
Arriskuen kudeaketa
Gardentasuna
Soldata-politikak
Lan-harremanak

**Kompromisoa lurraldearekiko, herritarrekiko, enpresekiko eta instituzioekiko**

Iturria: geuk egina

**Kutxabank**

Lurraldearekin
konprometituta

kutxabank

# Finantza-erakunde batek tokiko merkatuetan duen presentziarik handiena dugu, eta finantza-inklusioa bermatzen dugu

**Sarearen %35 <10.000 biztanleko udalerrietan, presentziarekin 200 biztanletik gorako udalerrietan**

**62 udalerritan sukurtsala duen erakunde bakarra gara (120 baino gehiago, kutxazainak barne hartuta)**

| EUSKADI 2023/12/31 | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| **Udalerriaren tamaina** | **Udalerri kopurua** | **Biztanleak** | **Kutxabanken bulegoak** | **Gainerako bulegoak** | **Kutxabanken kutxazainak** |
| **GUZTIRA** | **251** | **2.208.174** | **261** | **716** | **1.179** |
| >100.000 biztanle | 4 | 886.183 | 78 | 306 | 400 |
| <100.000 > 50.000 biztanle | 2 | 139.000 | 11 | 36 | 58 |
| <50.000 > 10.000 biztanle | 38 | 765.430 | 64 | 250 | 335 |
| <10.000 > 5.000 biztanle | 29 | 199.982 | 33 | 77 | 143 |
| <5.000 biztanle | 178 | 217.579 | 75 | 47 | 243 |
| **pro memoria** | | | | | |
| Bulego bakarra duten udalerriak | 46 | 60.285 | 46 | 0 | 104 |
| Kutxabanken bulego bakarra duten udalerriak | 46 | 60.285 | 46 | 0 | 104 |
| Bulegorik gabeko udalerriak | 104 | 72.783 | 0 | 0 | 59 |

| KORDOBA 2023/12/31 | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| **Udalerriaren tamaina** | **Udalerri kopurua** | **Biztanleak** | **Kutxabanken bulegoak** | **Gainerako bulegoak** | **Kutxabanken kutxazainak** |
| **GUZTIRA** | **77** | **772.464** | **103** | **240** | **245** |
| >100.000 biztanle | 1 | 319.515 | 32 | 90 | 97 |
| <100.000 > 50.000 biztanle | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 |
| <50.000 > 10.000 biztanle | 11 | 231.809 | 15 | 69 | 39 |
| <10.000 > 5.000 biztanle | 13 | 103.949 | 14 | 43 | 27 |
| <5.000 biztanle | 52 | 117.191 | 42 | 38 | 82 |
| **pro memoria** | | | | | |
| Bulego bakarra duten udalerriak | 17 | 23.878 | 16 | 1 | 22 |
| Kutxabanken bulego bakarra duten udalerriak | 16 | 22.417 | 16 | 0 | 22 |
| Bulegorik gabeko udalerriak | 10 | 9.314 | 0 | 0 | 4 |

Iturria: barne-informazioa

Kutxabank da bere jarduera-arloetan **landa-eremuetan oinarrizko banku-zerbitzuak emateko konpromiso handiena duen entitatea**

**Kutxabank**

Herritarrekin konprometituta

kutxabank

# Konpromisoa hartzen dugu pertsonekin, haien finantza-prestakuntzarekin, gure zerbitzuetarako sarbidearekin eta elkarteen esparruarekin

**Aniztasun funtzionala dutenen alde**

- Bulego eta kutxazain automatiko gehienak desgaitasunen bat dutenentzat egokituta daude
- Hornitzaileen politikan kontuan hartzen dugu
- Hirugarren sektoreko elkarte eta fundazioekin lankidetzan dago

**Hizkuntza-politika**

- Gauden eremuetako hizkuntza ofizial guztietan arreta bermatzen dugu, eta erakundeekin berariazko akordioak sinatzen ditugu horiek sustatzeko

**Elkarteen eta fundazioen laguntzak**

- Urtean 4 milioi baino gehiago gizarte, kultura, kirol, enpresa eta beste hainbat arlotako elkarte zein fundazioei bideratuta
- 250 proiektu baino gehiago lankidetzan 2023an

**Finantza-hezkuntza**

- Oinarrizko finantza-trebetasunei buruzko prestakuntza-programa, DBH eta LHko ikasleentzat. Jolas- eta prestakuntza-saioak
- 81 ikastetxek hartzen dute parte, 3.064 ikasle 2023an, 21.000 ikasle baino gehiago 2013tik
- Prestakuntza aseguruetan eta bankan unitate espezializatuen aldetik

Iturria: geuk egina

## Eragina enpleguaren gain




Iturria: CEPREDE

# Gure langileekin, eta enpleguarekin, gure jarduera korporatiboari eta finantzarioari esker

**5.650 langile baino gehiago; horietatik 500 baino gehiagok landa-inguruneetan ematen dute zerbitzua**

**Guztira Kutxabankek 530.000 enplegu baino gehiago mantentzen laguntzen du**

**Kutxabank**

Enpresekin konprometituta



# Epe luzeko harremana dugu gure hornitzaileekin, batez ere tokikoekin

**Hornitzaileak**

- Gehienbat tokiko hornitzaileei erostea
- Erosketa jasangarrirako politikak
- Giza eskubideen errespetuari eta ingurumenaren babesari buruzko Mundu Itunaren printzipioak betetzeko eta ustelkeriaren aurkako akordioak gure hornitzaile gehienekin

**500 MM € ordainketetan 2023an**
**12.000 euskal hornitzaile baino gehiagori**

**Ordaintzeko batez besteko epea <15 egun**

Gure bezeroen enpresa-jarduera
finantzatzen dugu,
proiektu esanguratsuen parte gara

**Enpresa-proiektuen finantzaketa**

**Enpresa traktoreetan parte hatzea**

**Industria-partaidetzarako fondoak**

**Poiektu esanguratsuen babesa**



**Eragina BPGren gain (Milioi euro)**




Iturria: CEPREDE

## Horri guztiari esker ekonomiaren Balio Erantsia sortzen eta mantentzen duen enpresa nagusietako bat gara

**Kutxabank-ek BPGaren %0,11 sortzen du, eta %2,5 eusten laguntzen du. Bere jarduera-eremuetan, berriz, ehuneko hori %10,9raino heltzen da**

**Kutxabank**

Administrazio publikoekin
konprometituta

kutxabank

# Zerga-ekarpen handiena egiten duten enpresetako bat gara

**Kutxabankek 830 MM €-tik gora ordaintzen du zergetan, eta 13.700 MM €-tik gorako bilketari eusten laguntzen du Espainia osoan**

**Jasandako nahiz bildutako zergak eta tasak (Milioi euro)**




Iturria: CEPREDE

**Kutxabank**

Gizartearekin konprometituta

kutxabank

# Laburbilduz, Kutxabank giltzarria da eragin ekonomikoari dagokionez

| | BPGarena | Enpleguarena | Zergena |
|---|---|---|---|
| Eragin ekonomikoa **Euskadin** | %10,9 | %12,5 | %4,5 |
| Eragin ekonomikoa **Kordoban** | %10,3 | %11,0 | %4,8 |
| Eragin ekonomikoa **Espainian** | %2,5 | %2,8 | %1,1 |

Iturria: CEPREDE. BPGren gainean kalkulatutako ehunekoak, biztanleria landunaren gainean kalkulatuta, Enpleguan izan ezik

**Kutxabank**

Jasangarritasunarekin konprometituta

kutxabank

# Aitzindariak gara finantza sektorean jasangarritasunaren arloan

**Gure negozio ereduak NBEren Garapen Iraunkorreko Helburuak betetzeko lan egiten du (17tik 13)**




## IGG/ESG irizpideak barne hartzen ditu

- 2015ean **bonu soziala** jaulki zuen estatuko lehenengo finantza erakundea
- **Energia %100 berriztagarriz** hornitzeko epe luzerako hitzarmena sinatu zuen lehenengo finantza erakundea
- **Karbono aztarna neutroa** izan duen lehenengo finantza erakundea kontsumoa murriztuz eta gure basoak kudeatuz
- Gizarte Inbertsio Arduratsuan aitzindaria 18 urtetik gorako eskarmentuarekin
- 17 urteko esperientzia **jasangarritasunari** buruzko agiaztapena egiten

Iturria: NBE Kutxabanken jarduera-arloak

# Kutxabank taldea sozialki arduratsuak diren inbertsioak kudeatzen dituen erakunde nagusienetakoa da

kutxabank gestión

- 2017an NBEko (UNPRI) **"Principles for Responsible Investment"** ekimenarekin bat egitea 2022ko ikuskapenean, **gehieneko kalifikazioa (5/5) Politiken, Gobernantzaren eta Estrategiaren kategoria nagusian eta barne-eredua zuzenean ezartzeko kategorietan** (Errenta Aldakorra eta Errenta Finkoa)
- Espainiako kudeatzaile **liderra Morningstar Sustainability Rating-ek inbertsio-funtsen ebaluazio iraunkorrean** (3,84/5, sektorearen batez bestekoa 3,18koa den bitartean)
- Liderra produktu kualifikatuen eskaintzan, **SFDR** araudiaren arabera (inbertsio arduratsuaren arloko dibulgazioa (ISR)):
- **24 inbertsio-funts ( 8. artikulua) eta 2 funts ( 9)**
- **Kudeatutako ondare** guztiaren **% 69**
- Espainiako **3. kudeatzailea, kudeatutako ASG ondareari dagokionez** (15.000 MM baino gehiago)
- Espainiako **1. kudeatzailea, funtsetan ehuneko handiena duena (9. artikulua)** (% 4)
- 2023an kudeatutako zorro guztiak ere 8. artikulu gisa katalogatu dira (Baskepensiones + KB Pensiones)
- Aitzindariak **funts solidarioak merkaturatzen:** Kutxabank Fondo Solidario 2005ean (% 0,70 banku-fundazioetarako + Gureak + Lantegi Batuak). **Sakoneko eraldaketa-prozesuan** (9. artikulua) jasangarritasunari buruzko konpromisoa sendotzeko (gaur egun 8. artikuluko funtsa, SRDRren arabera), bere espiritu solidarioari eutsiz
- **Nazioarteko erakundeek bultzatutako lankidetza-ekimenetan parte hartzea.** Adibidez, PRIk bultzatutako "Advance" (giza eskubideak) eta "Spring" (ingurumena)

Fineco Banca Privada Kutxabank

- NBEko (UNPRI) **"Principles For Responsible Investment"**ekin bat egitea - 2016, eta **Urteko Auditoretza A kalifikazioarekin** (Strategy & Governance)
- Finecoren **Gizarte Erantzukizun Korporatiboaren eta Jasangarritasunaren Memoria** egitea eta argitaratzea, kanpoko aditu batek ikuskatua
- **Kudeatutako ondarearen % 100ean IGG/ESG inbertsio-politika garatzea.**
- Gure inbertsio-funtsetan kudeatutako ondarearen **% 40 baino gehiago SFDR Erregelamenduaren 8. artikuluaren arabera** sailkatuta dago, IGG/ESG ezaugarriak sustatzen baititu (4 funts eta 4 konpartimentu)
- Inbertsio-erabakiak hartzeko prozesuan **jasangarritasun arriskuak integratzeko barne-metodologia** garatzea
- **Kudeaketa delegatzeko akordioak** finantza jasangarrietan liderrak diren nazioarteko kudeatzaileetan, hala nola Robeco, Schroders, Blackrock edo Amundi
- **Bidegiñ I Europako Epe Luzeko Inbertsio Funtsa** abian jartzea, gure inguruneko enpresen garapenean laguntzeko, Kutxabank Empresas eta Elkargirekin batera
- Finecoko langile guztientzako **prestakuntza** espezifikoa, finantza iraunkorren erregulazioari buruz, kanpoko aditua batekin lankidetzan.
- **Unibertsitateekiko lankidetza inguruko finantzei buruzko prestakuntzan**
- Deusto Business Schoolekin **"ESG Investment and Finance Summer Programme"** antolatzea

kutxabank seguros

- **Aurrerapen sendoa Iraunkortasunaren Ibilbide Orriaren** lan ildoetan
- **Klima-arriskuaren kudeaketa** inplementatu da **inbertsio** propioen **zorroan:**
  - **Trantsizio-arriskurako esposizioaren azterketa** zorro guztietan txertatuta
  - **Bazterketa-prozedura indarrean,** inbertsio berrietan aplikatzeko
- **Etxeko eta Bizitzako zorroetarako** klima- eta ingurumen-arriskuen gaineko **erresistentzia-azterketak eta -probak indartu dira** (arrazoi klimatologikoengatiko ezbehar-tasa handitzea, itsas mailaren igoerak eragindako inpaktua, hilkortasun- eta bizitza-luzaroko arriskuei buruzko azterketa kualitatiboa, etab.)
- **Banakako pentsio-funtsak Dibulgazio Erregelamenduaren 8. artikuluaren arabera katalogatu ahal izateko** aplikatu beharreko araudiak **ezarritako eskakizunak bete dira**

NOR BOLSA SOCIEDAD DE VALORES S.A.

- **Aurrerapen-memoria argitaratzea, NBEren GJHei atxikitako enpresa gisa**
- **Eusko Jaurlaritzaren emisio jasangarriaren koordinatzaile globala** eta FCC Ingurumen Zerbitzuen emisio berdearen Co-lead managerra
- **Saleroslea zor-agirien 10 programa berdetan** edo jasangarritasunari lotutakoetan
- **IGG/ESG irizpideekin** kudeatutako errenta aldakorreko eta errenta finkoko zorroak
- Tokiko enpresen azterketan **IGG/ESGren KPIak sartzea**

Iturria: geuk egina

# Kutxabank Taldearen ekimenak

| | |
|---|---|
| **Hipoteka berdea**[1] | **721MM€** (ekoizpen berriaren % 22) |
| **Kontsumo berdea**[1] | **25MM€** (x2,4 2022arekiko) |
| **Enpresetarako Fin. Jasangarria** | **1.369MM€** (horietatik 113MM € gizarte-arlokoak baino ez dira) |
| **Aseguru berdea** | **2.389 poliza berriak** (+20% aurreko urtearekin alderatuta) |
| **Inb. funtsak 9. artikulua** | **952MM€** (merkatu kuotaren % 26) |

**Fin. Jasangarria guztira: 2.116MM€**
(hipotekak, kontsumoa eta enpresen finantzaketa)

| **777MM€** | **512MM€** | **80MM€** |
|---|---|---|
| KPIak edo helburu jasangarriak | Eraikuntza ekologikoa | Gainerakoak (garraio jasangarria, berriztagarriak, nekazaritza, ekonomia soziala...) |

*Produktu iraunkorren sailkapena, Finantzaketa Iraunkorreko Esparruetan garatzen ari diren barne-irizpideen arabera

(1) 2023ko ekitaldiko hipoteken eta kontsumo berdearen bolumena kalkulatzeko, hobekuntza metodologikoak aplikatu dira 4Tan, gainbegiraleen eskakizunetara eta Finantzaketa Jasangarriaren Barne Esparru berrian ezarritako eskakizunetara egokitzeko. Horrela, kalkulatutako bolumenak berregokitu dira, eta, era berean, 2022ko ekitaldiko proformako datu homogeneoak zenbatetsi dira

# Ingurumenarekin oso konprometituta gaude, eta urtez urte hobetzen dugu gure karbono-aztarna

| EMISIO INTENSITATEA (KUTXABANK ETA CAJASUR) | 2021 | 2022 | 2023 |
|---|---|---|---|
| Irismena 1 | 775,75 | 580,50 | 475,77 |
| Irismena 2 | 0 | 0 | 0 |
| Irismena 3 | 412,5* | 544,79* | 1.273,42 |
| **TnCO$_2$e isurketak (1,2 eta 3)** | **1.188,25** | **1.125,29** | **1.749,19** |
| **Enplegatuak (Kutxabank eta Cajasur)** | 5.205 | 5.023 | 5.053 |
| **Enplegatu bakoitzeko emisio intentsitatea** | **0,22** | **0,22** | **0,35** |

*Aurreko ekitaldietako memorietan emandako datuen inguruko informazioa

| TALDEKO GAINERAKO ENTITATEEN EMISIO INTENSITATEA* | 2022 | 2023 |
|---|---|---|
| Irismena 1 | 9,93 | 19,27 |
| Irismena 2 | 129,63** | 79,92 |
| **TnCO$_2$e isurketak (1eta 3)** | **139,56** | **99,19** |
| **Enplegatuak** | **320** | **330** |
| **Enplegatu bakoitzeko emisio intentsitatea** | **0,43** | **0,30** |

* Honako erakunde hauentzako aztarna kalkulatzen da: Fineco Taldea, Gesfinor, Kutxabank Gestión, Norbolsa eta Higiezinen Taldea

** 2022ko memorian emandako datuen inguruko informazioa

Iturria: geuk egina

Kutxabankek betidanik argitaratu du (eta lehen aurrezki-kutxek egiten zuten) Jasangarritasunaren edo Enpresaren Gizarte Erantzukizunaren memoria. Hainbat urtez borondatez egindako argitalpen hori, beti aditu independente batek egiaztatua eta GRI Standards-en pean egina, lege-errekerimendu bihurtu da gaur egun.

Memoria horretan Kutxabanken jarduerak ingurumenean duen zuzeneko eragina zehazten da:

- Kutxabanken jarduerak 1.749 tona CO2 sortu zituen 2023an. Hazkunde hori 3. irismenean gertatu da, plantillaren in itinere isurien estimazioa berriro kalkulatu delako, Entitatearen eraikin nagusietako langileei egindako inkestatik abiatuta
- 2019tik, isurketak % 80 baino gehiago murriztu dira, neurri handi batean Iberdrolarekin Nuñez de Balboa eguzki-plantaren energia % 100 berriztagarria hornitzeko epe luzerako akordioa indarrean sartu delako
- Basoek gaur egun eta etorkizunean duten balioa eta atmosferako CO2a atxikitzeko duten ahalmena ezagututa, Kutxabankek 914 hektarea kudeatzen ditu gaur egun, eta 2023an 57 hektareako azalera birlandatu du, karbono dioxidoa iragazteko ahalmen handiagoa duten 65.000 zuhaitz espezie berri landatuz
- Kutxabankek berriro kalkulatu ditu bere historian kudeatu dituen ustiategi eta baso guztien estimazioak, eta dauden baso eta ustiategietan 243.772,18 tona CO2e xurgatu ditu

# Gure eraginkortasun energetikoa hobetzearen alde lan egiten dugu, ekonomia zirkularraren eta gizarte-sentsibilizazioa areagotzearen alde

**Energia kontsumoa eta karbono-aztarna**

- CO2 isuri negatiboak, Taldearen instalazioetan energia-kontsumoa etengabe murrizteari esker, ordutegiak, tenperaturak eta instalazioak arautzeko neurriekin
- ... 1.000 hektarea inguru kudeatuta
- Espainian epe luzerako energia berriztagarria saltzeko lehen akordioa Iberdrolarekin, gure energiaren % 100 berriztagarria izango dela bermatzen duena

**Sentsibilizazioa**

- Langileak aktiboki inplikatzen ditugu, prestakuntzaren eta sentsibilizazioaren bidez, eta praktika arduratsuak sustatuz Gure jarduera garatzen dugun gizarteari ingurumenaren inguruko kontzientziazioaren berri ematen diogu
- Herritarren ingurumen-hezkuntzan eta -sentsibilizazioan eragina duten programak bultzatzen ditugu

**Paperaren kontsumoa**

- Erabilitako paper guztia baso jasangarrietatik dator
- Kontsumitutako papera etengabe murrizteko neurriak. Kontsumitutako paper-bolumenaren etengabeko beherakada: Bi orrialdeetatik inprimatzea, paperaren ordez PDFak sortzeko prozesuak berrikustea, posta elektronikoa

**Produktu “berdeak”.**

- Ingurumenaren alde lan egiten duten erakundeekin kidetasun-txartelak ditugu, baita etxebizitzak, ibilgailuak eta etxetresna ekoeraginkorrak finantzatzeko mailegu berdeak ere
- Baso-espazioak, energia berriztagarriak eta energia-eraginkortasuna babesteko proiektuak babesten ditugu, besteak beste. Enpresa askok ingurumen ikuspegitik jasangarriak diren proiektuak dituzte, eta Kutxabanken bezero dira

Iturria: geuk egina

# Sortu ginenetik, lidergoa gizarte-arloan

**Lan-harremanak**
- Hitzarmen kolektibo propioa.
- Langileen >% 95k baino gehiagok kontratu mugagabea du
- Prestakuntza plana
- Gaitasunen araberako hiztegi eta ebaluazio prozesua
- Boluntariotza korporatiboa

**Banku fundazioak**
- BBK, Kutxa eta Vital banku fundazioekin lankidetzan ari da beren jarduerak garatzeko
- 1.500 milioi euro baino gehiago dibidenduetan, Kutxabank sortu zenetik
- Cajasur Fundazioa eta Convisur, Gizarte Ekintzari bere jarduera eremuetan eusteko

**Berdintasun plana**
- Berdintasun plana, langileen ordezkariekin sinatua
- Lana eta familia bizitza bateratzeko neurriak
- Gehienak emakumeak (%60) eta erantzukizuneko postuetan daudenak ≈% 50 dira

**Babes Ofizialeko Etxebizitzak, Kooperatibak**
- Lehenak kooperatibak, Babes Ofizialeko Etxebizitzak eta Udalek Babestutako Etxebizitzak sustatzeko finantzaketan bere jarduera burutzen duen lurraldeetan, krisiaren aurretik, bitartean eta ondoren
- Instituzioekin hitzarmenak ditu eta finantzaketa baldintza berezietan eskaini die erosle gazteei
- Ingurumen arloko efizientzia irizpideak dituzten babes ofizialeko etxebizitza berriak

Iturria: geuk egina



# Merkatuko jardunbide onenekin bat datorren gobernantza-ereduarekin, eta gardentasunean hobetzen jarraituz

- 2007az geroztik **urtero argitaratu eta ikuskatutako memoria**, aditu independente batek (AENOR) egina
- **Global Reporting Initiativeren estandarrak** betez
- **Interes-taldeek garrantzitsutzat jotzen duten informazioa** du
- **Taldeko erakunde guztiak** biltzen ditu
- **Administrazio Kontseiluak** onartzen du

- Honako hauei buruzko informazioa jasotzen du:
  - **Erakundearen** profila
  - **Gobernu korporatiboa**
  - **Etika eta osotasuna**
  - **Jarduera ekonomikoa**
  - **Ingurumen-jarduna** (kontsumoak, hornitzaileen ingurumen ebaluazioa, ingurumen araudia betetzea)
  - **Gizarte-jarduna** (langileria, gizarte ekintza, erosketa arduratsua, hizkuntza kudeaketa, balio sorkuntza)

Gainera, Kutxabank **Nazio Batuen Mundu Itunaren sinatzailea da 2012tik,** eta, aldizka, betetze mailari buruzko jarraipen txostena egiten du

Iturria: geuk egina

**Kutxabank**

Gizartearekin konprometituta

kutxabank




# Une zailetan familiei eta enpresei laguntzen saiatzen gara

## Finantza laguntza familiei, negoziei eta enpresei

- Ahulezian dauden familientzako eta kolektiboentzako **zorraren luzamendua**
- **ICO eta Elkargi** erakundeen maileguak
- **Aurrez emandako** maileguak
- **Pentsioen eta langabezia prestazioaren ordainketa aurreratzea**
- **BGAEak eta Pentsio Planak erreskatatzeko** aukera
- **Ordainketa aldi baterako barkatzea** FSV alokairuan
- **OK eta Negozio Kontuetako baldintzen** tratamendu berezia
- **Kreditu txartelen zordunketa geroratzea**
- **Taldeko hornitzaileei ordaintzeko epeak murriztea**

## Osasun larrialdian gizartearekin lankidetzan aritzea

- **Kutxazainetan dirua zordunketan komisiorik gabe ateratzeko** aukera
- PIN zenbakirik gabeko **Contactless sistemaren muga handitu da**
- **Urruneko bankua eta ordainbideak sustatu** dira
- **Urruneko kudeaketa pertsonalizatua** indartu da

**Kutxabank**

Liderrak kaudimenean

# Eta, gainera, ikuskatzaileek, arautzaileek eta merkatu-eragileek erakunde lider gisa kokatzen gaituzte

## Ikuskatzaileak

**SREP erabakia**

EUROPEAN CENTRAL BANK – EUROSYSTEM

| | ES | EU |
|---|---|---|
| P2R | 1. | 3. |

**Gardentasuna ariketa**

EBA – European Banking Authority

| | ES |
|---|---|
| CET1 | 1. |
| BERANDUTZA | 1. |
| EFIZIENTZIA | 1. |

**STRESS testa**

EBA – European Banking Authority

| | ES | EU |
|---|---|---|
| CET1 | 1. | Top 10 |

CET 1 egoera kaltegarria

**Ebazpena**

Single Resolution Board

| | ES | EU |
|---|---|---|
| MREL | 1. | 1. |

Erakunde esanguratsuen artean

## Merkatua

**Kreditu kalifikazioak** hobetu ditugu, eta Espainiako bankaren maila gorenean kokatu dugu entitatea

| | |
|---|---|
| Moody's | A3 Positive |
| FitchRatings | A- Stable |
| DBRS | A Stable |

Alvarez & Marsal — **Jarduera** 1. ES

Arrisku kalitatean eta kaudimenean lehenak gara; eta aktiboen, hazkundearen eta likideziaren errentagarritasunean top 3an gaude.

The Banker — **Jarduera** 2. ES

## Rating ESG Sustainalytics

SUSTAINALYTICS

ESG INDUSTRY TOP RATED 2023 — ESG REGIONAL TOP RATED 2023

**9.5** Update Nov 27, 2023

**+0.2** Momentum

**Negligible Risk**

| NEGL | LOW | MED | HIGH | SEVERE |
|---|---|---|---|---|
| 0-10 | 10-20 | 20-30 | 30-40 | 40+ |

Sustainalyticsek **ESG arrisku maila txikia** duen Entitatea sailkatu du **mundu mailan sailkapenik onena duten konpainien % 1en barruan**

kutxabank




KUTXABANKEN EFIZIENTZIA ENERGETIKORAKO MAILEGUA
ETXEAN EDO KOMUNITATEAN BERRIKUNTZAREN BAT EGITEA PENTSATZEN ARI BAZARETE,
KUTXABANKEN ZUENTZAKO AUKERARIK ONENA DUGU.
GALDETU GURI.
TEKNOLOGIA BERDEAK JARTZEKO
LED ARGIZTAPENA IPINTZEKO
KLIMATIZAZIO ARDURATSUA ERABILTZEKO
FATXADAK BERRITZEKO
ISOLAMENDUA HOBETZEKO
KUTXABANK NEXT
Kutxabank, SA. Kale Nagusia, 30-32, 48009 Bilbo. IFZ: A95653077. Bizkaiko Merkataritza Erregistroan inskribatuta. 5226 Tomoa, 0 Liburua, BI-58729 Orria, 1 Folioa, 1. Inskripzioa.